

**2007KO MARTXOAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Martxo

URTEA: Bi mila eta zazpia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Pello Garaialde Goikoetxea
Malu Valles Fernandez
Aitor Aldasoro Iturbe
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jose Antonio Ibaibarriaga Usabiaga
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Fernando Boada Gonzalez
Julio Herreros Serna
Julia Fernanda Hidalgo Perez

ETORRI GABEAK: Jon Olano Arrese
Alfonso Segade Gonzalez
Maria Pilar Vispo Chamosa
Gonzalo Zaldo eta Arana

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2007ko martxoaren 1eko aktaren berri eman ondoren, Julio Herreros jaunak esan du ez duela onartuko legez kanpo dagoen plataformak Udalbatzan parte hartu duelako. Besteek adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, PSOE-PSE-EE, EB)

Aurkakoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

2.- XEHETASUNEZKO AZTERLANA. 6. Sektoreko Xehetasunezko Azterlana behin betiko onartzea.

Alkateak hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Ittolako 6. Sektoreko Xehetasunezko Azterlanari behin betiko onespena ematea.

AURREKARIAK

I.- 2007ko otsailaren 9ko datarekin, Alkateak Ittolako 6. Sektoreko Xehetasunezko Azterlanari hasierako onespena baldintzekin eman zion.

II.- Espedientea jendaurrean jarri zen eta Berria, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2007ko otsailaren 10, 15 eta 23an hurrenez hurren iragarkiak argitaratu ziren. Legeak ezartzen duen 20 eguneko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

III.- Hasierako onespenerabakia sustatzaileari jakinarazi zitzaien, zuzenketak egitea aurreikusiz eta Testu Bateratua aurkezteko adieraziz. 2007ko martxoaren 27an, Testu Bateratu hori aurkeztu da eta aztertu ondoren zuzena dela egiaztatu da.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Ittolako 6. Sektoreko Xehetasunezko Azterlana behin betiko onartzea.

Bigarren. Erabaki honen berri sustatzaileari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- HITZARMENA. CONSTRUCCIONES AMENABAR, S. A. enpresarekin sinatu beharreko hitzarmena babes ofizialeko 42 etxebizitza esleitzeko.

Alkateak hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresarekin hitzarmena sinatzea.

Kontuan izanik:

- CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. izan behar duela, 1. Sektoreko Konpentsazio Batzordearen aldaketatik ondorioztatutako B-1.1, B-1.2 eta B-1.3 lursailetan babes ofizialeko etxebizitzak egin behar dituen.

- Udalak interesa duela etxebizitza horien esleipen-prozesua berdintasun- eta gardentasun-printzipioen babesean egitea, espekulazioa eta iruzurra saihesteko eta aipatutako etxebizitzak esleipena arautzeko, honekin batera doan Hitzarmena egin da.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresarekin sinatu beharreko elkarlan-hitzarmenaren edukia, Beasaingo 1. Sektorean egin behar diren babes ofizialeko 42 etxebizitza esleitzeari buruzkoa, onartzea.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, aipatutako hitzarmena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Afortunadamente después del largo túnel de seis años se ve que el proyecto se va a poner en marcha. Estamos de acuerdo, pero nos gustaría que al igual que el Ayuntamiento va a controlar la adjudicación, controlase también en la medida de lo posible la obra,

en lo que a acabados se refiere para que las viviendas sean lo más dignas posibles.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): ”En este caso es el propio Gobierno Vasco el que tiene que dar el visto bueno, para otorgar después la calificación definitiva.”

Bozketa eginda, aho batez onartu dira proposamena eta ondorengo hitzarmena:

“Beasainen 2007komartxoarenan

BILDURIK

Alde batetik, PATXI PLAZAOLA MUGURUZA, Beasaingo Alkate-Lehendakaria. Ekintza honetarako ahalmena, 2007ko martxoaren 29an Udalbatza Osoak hartutako erabakiak emanda.

Aipatutako erabakiaren ziurtagiria, 1. eranskin moduan doa.

Beste aldetik, ERNESTO MARTÍNEZ DE CABREDO ARRIETA, adinez heldua eta Zarauzko bizilaguna, 15.960.453-V, NA duena, CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresaren ordeztuz, Jose Carlos Arrendo Ruiz Notarioaren aurrean 2006ko uztailaren hogeita batean, 2.874 protokolo-zenbakia duen eskrituraren arabera.

Aipatutako ahalmena, 2. eranskin modura doa.

Alde guztiek ahalmena elkarri aitortzen diote, ELKARLAN-HITZARMEN hau formaltzeko eta jarraian ezarritako ordenan, aipatzen dituzte ondorengo

AURREKARIAK

I.- 2004ko urriaren 13an Alkateak emandako ebazpenaren bidez, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 1. Sektoreko Konpentsazio Proiektuaren aldaketa behin betiko onartu zuen eta besteak beste, ondorioztatutako lursailen artean, B-1.1, B-1.2 eta B-1.3 aurreikusten dira. Lehenengoa Goi-Etxe, S.A. eta Urbialde Iru, S.L.ri zatitzeke esleitua eta bigarrena eta hirugarrena hurrenez hurren, Urbialde Iru, S.L.ri esleitua. Lursail bakoitzean 14 babes ofizialeko etxebizitza eraiki daitezke.

II.- 2006ko abenduaren hogeita zazpiko datadun eskritura bidez, ondorioztatutako lursailen esleipendunek CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresari lursail horien jabetza saldu egin zioten eta, horren ondorioz, merkataritza-enpresa honi dagokio, babes ofizialeko 42 etxebizitza horiek eraikitzea.

III.- CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresak 2007ko otsailaren 12ko datarekin, sustapen horretarako behin-behineko kalifikazioa lortu du eta Udalak bere aldetik, 2007ko martxoaren 1eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, Beasaingo

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1. Sektorean dauden lursailetan, babes ofizialeko 42 etxebizitza egiteko, hirigintza-lizentzia eta obra-lizentzia eman dizkio.

IV.- Udalak interesa du etxebizitza hauen esleipen-prozesuan berdintasun- eta gardentasun-printzipioak kontuan izatea. Hori guztia, espekulazioa eta iruzurra saihestu nahian. Horregatik elkarlan-hitzarmen hau egiten da, 2004ko abuztuaren 21eko Aginduaren 1d) artikulua babesean, ondorengo

ESTIPULAZIOEKIN

Lehenik. CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresak sustatutako babes ofizialeko 42 etxebizitzetatik, 41 Notario aurrean egindako zozketa bidez esleituko dira, jarraian adierazten prozeduraren arabera.

Zozketa-prozeduratik, etxebizitza bat salbuesten da, bizikidetz-unitate baten birkokatzea bermatzeko. Etxebizitza honen kokapena, azalera eta erdieste edo erabilera-erregimena, ondorengoak dira:

3. atarian kokatutako etxebizitza, C atikoa, gutxi gorabehera 89,97 m² dituena. Erregimena, erabateko jabaria izango da eta birkokatze-onuradunen kontura izango dira, etxebizitza eskuratzeko gastuak, hala nola, notaritzakoak erregistrokoak, BEZ etab.

Bigarren. Etxebizitzetako esleipendunek gutxienez ere, babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzuaren inguruko finantza-neurri buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 15. artikuluan izaera orokorrarekin aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte.

Hirugarren. Hitzarmen honetako helburu diren babes ofizialeko sustapenean parte hartzeko, Beasaingo udalerrian errolatuta egotea ezinbestekoa izango da, 2007ko apirilaren 1eko data erreferentzi modura hartuta:

1. Etengabe bi azken urteetan.
2. Azken hamar urteetan, bost urte osatzen dituzten egun-kopuruetan.

Laugarren. Hitzarmen hau formalitzen den dataren aurreko zerga-epealdiko diru-sarrerak hartuko dira kontuan.

Bosgarren. Etxebizitza hauetako hautaketa-prozesuan parte hartzeko, eskatzaileek behar den moduan alta emanda egon behar dute, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saialak duen etxebizitzen Euskal Zerbitzuan edo Etxebideko Eskatzaileen Erregistroan, 2006ko azaroren 30a baino lehenagotik.

Udalak Etxebideri eskatuko dio Beasaingo udalerrian babes ofizialeko etxebizitza eskatu duten eskatzaileen zerrenda eta Etxebidek Udalari zerrenda hori eman bezain laster, errolaren baldintza egiaztatuko da eta interesatuen behin-behineko zerrenda egingo da. Zerrenda hori jendaurrean jarriko da hamar eguneko epean eta behin betiko bihurtuko da aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren.

Besterendu behar diren etxebizitzak, zerrenda horretan dauden artean, Notario aurrean egindako zoketa publikoan esleituko dira.

Seigarren. Etxebizitzak jabetzan esleituko dira eta esleipendunen hautaketa, Notario aurrean egindako zozketaren bidez egingo da. Horretarako babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen duen 2002ko ekainaren 14ko Aginduan aurreikusita dauden nahitaez erreserbatutako kupoak errespetatuko dira.

Zazpigarren. Hautatuen zerrenda eta esleitutako etxebizitzak berri sustatzaileari emango zaio, honek eskritura publikoak egin ditzan, aldez aurretik Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Ordezkaritzak ikus-onetsitako salerosketa-kontratu pribatua sinatuta.

Sustatzailearen ardura izango da halaber, zozketatik salbuetsita dagoen etxebizitza-esleipendunarekin eskritura publikoa sinatzea.

Zortzigarren. Elkarlan-hitzarmen hau sinatu ondoren, Udalak ediktu taulan, prentsan eta Webgunean argitaratuko ditu, Beasaingo Udalean CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresak sustatutako etxebizitzetara iristeko baldintzak.

Eta guztiaren adostasun frogatuz, bildutakoek hitzarmen hau bikoizturik sinatu dute goiburuan adierazitako datan eta lekuan.””

4.- HOBARIA. Arangoiti egoitza handitzeko obretan, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarekiko hobaria.

Alkate jaunak, hazienda-batzordearen proposamenaren berri eman du:

“Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

% 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal-onurakotzat izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, inguruabar sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehuneko Udalbatzak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda-batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal-onurako inguruabar sozialak betetzen dira, beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa onartzea PROPOSATZEN dio:

Arangoiti Egoitzaren alboan, eraikina eta lorategi eta atsedeenlekurako gune berria egiteko obrek sortzen duten Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergan % 95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- KREDITU-ALDAKETA. Kreditu gehigarrien atalean kreditu-aldaketa onartzea,.

Alkate jaunak hazienda-batzordearen proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Kreditu-aldaketa. 1. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

2007ko aurrekontuaren gaineko kreditu-aldaketari hasiera eman zaio Alkatetzatik, alde batetik beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenetatik edota konpromisoetatik datozen gastuei aurre egiteko krediturik ez dagoelako, eta bestetik, aurrekontuan aurreikusitako hainbat proiektu egikaritzeko behar adina kreditu ez dagoela agerian gelditu delako. Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, hazienda-batzordeak Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 1. Kreditu-gehikuntzen bidez 1.206.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu-aldaketari hasierako onarpena ematea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasotzen ez bada, behin betirako onartutzat emango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada (PSE-EE/PSOE) jaunak: “No se ha repartido la documentación completa, aunque pienso que esos datos se habrán repartido en la comisión de Hacienda a la que no hemos asistido.

El presupuesto como es bien sabido no lo apoyamos y además nos parecía un presupuesto enfocado a las elecciones, porque se había abierto mucho el abanico sin concretar las inversiones, y aunque en alguna de ellas no se podía saber con certeza el coste, no ocurre lo mismo con todas. Nosotros aceptamos algunas cosas que hoy se presentan como por ejemplo, lo del palacio de Igartza, pero otras no, y como esto es un conjunto y en su día lo

criticamos y no lo apoyamos, hoy tampoco lo vamos a aprobar porque se debería haber atinado más en los presupuestos, sin tener en cuenta que nos acercamos a una campaña electoral.”

Alkate jaunak: “Yo creo que en los cuatro años estamos en campaña electoral, pero he de decir que lo hasta ahora presupuestado se ha ejecutado bastante. Un desvío de 120.000 a 123.000, creo que no es excesivo. En el tema del aprovechamiento urbanístico, hemos tenido bastantes discusiones, y después de analizar la Ley lo hemos incorporado, porque esos ingresos van a llegar.”

Horren ondorioz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PP, EB)

Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Beraz, gehiengo absolutuarekin onartu da ondorengo kreditu-aldaketa:

Aurrekontuko kontu saila/ Partida Presupuestaria	Kontzeptua / Concepto	Kredituak / Créditos		
		Egungoak / Actuales	Aldaketak / Modificaciones	Behin betikoak / Definitivos
1.4200.682.453.00.01	Ondare-ondasunen inbertsioak: Igartza/ Inversiones bienes patrimoniales: Igartza	550.000,00	675.000,00	1.225.000,00
1.8000.682.531.10.01	Ondare-ondas. inbertsioak: Arriaran/ Inversión bienes patrim.: Edif.. Arriarán	150.000,00	128.000,00	278.000,00
1.5000.601.313.60.01	Azp. eta hirig.: Irisgarritasun-plana/ Inf. y urb.: Plan de accesibilidad	120.000,00	3.000,00	123.000,00
1.5000.682.461.10.01	Ondare-ondasunak: Aretoen erosketa/ Bienes patrimoniales: Compra locales	0,00	400.000,00	400.000,00
GUZTIRA / TOTAL		820.000,00	1.206.000,00	2.026.000,00

APARTEKO KREDITUAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA / PROPUESTA DE FINANCIACION DE CREDITOS EXTRAORDINARIOS

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontu-sailak / Conceptos de Ingresos y/o partidas de Gastos	Baliabidearen kontzeptua / Concepto del recurso	Sarrera handiagoak edota gastuetako bajak / Mayores Ingresos y/o Bajas en Gastos
651.01	Hirigintzako aprobetxamenduak	400.000,00
720.02	Aprovechamientos urbanísticos/ Foru Aldundia: Igartza / Diputación Foral: Igartza	600.000,00
710.03	Eusko Jaurjaritza: Arriarango elkarte/ Gobierno Vasco: Ampliac. sociedad Arriarán	102.394,50
870.01	Diruzaintzako gerak.: kreditu gehigarriak/ Remanente tesorería: Cdtos. adicionales	103.605,50
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA / TOTAL IGUAL A LOS INCREMENTOS DE GASTOS		1.206.000,00

6.- TASA ETA TARIFEN BAREMOA. Tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko baremoa onartzea.

Alkate jaunak, Imanol Aranburu gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“Gizarte Ongizate-batzordeak 2007ko martxoaren 12an egindako bileran, Udaleko zerbitzuen erabilpenagatik tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko ordenantza dela eta, ondorengo proposamena aurkeztea erabaki du:

.- 2006. urtean ur-, zabor- eta estolderi kontzeptuengatik eta Udal Kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindutako ordainagiritako kopuruak berreskuratzeko diru-sarreraren baremoa ondorengo izatea:

Hileko 466,98 euro arte, ordainagiriko zenbateko guztia lortzeko.
Hileko 466,99 eurotik 639,17 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 75 lortzeko.

Hileko 639,18 eurotik 811,35 euro arte, ordainagiriko zenbatekoaren % 50 lortzeko.

Aipatutako proposamenak Udalbatzak onartzea eskatzen da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

7.- EUSKARA. 2007-2011 eperako Euskararen Erabilera Biziberritzeko Plan Estrategikoa onartzea.

Alkateak, Aitor Aldasoro, euskara-batzordeburuari eman dio hitza eta honek proposamenaren berri eman aurretik ondorengoa dio:

“Bigarren plangintzaldi hau onartzea proposatzen da. Pentsatzen dugu, urrats garrantzitsua eman dela hizkuntzaren arloan eta beraren egituran eta horretarako, biziberritzeko plan nagusia erabili da. Dakitenek ez erabiltzearen arrazoiak zeintzuk diren jakin ez arren, pentsatzen dugu pausoak eman behar direla. Horretarako aholku-batzordeak gidatzen duen plan hau, martxan jarri zen aurreko plangintzaldian eta oraingo honetan indartu egin da. Indartzeko bi hitzetan esango dut zeini indarra emango diogun. Pentsatzen da zerbitzu-hizkuntzak herritarren eskubideak bermatu behar dituela eta hor pauso bat eman nahi da, erabateko elebitasunera iristeko. Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan, Lan-hitz plana eskaini die inguruko enpresei eta guk tresna hori erabili behar dugu enpresak gerturatzeko eta pauso bat emateko bai erabileran eta baita zerbitzuan ere. Bestalde azpimarratu beharra dago, ikastetxe eta aisia munduarekin euskararen erabilerak duen garrantzia ardatz izanik, beraiekin elkarlanean jarraituko dugula hainbat ekimen aurrera ateratzeko. Begiak hor jarriko dira, arlo sozio-ekonomikoan, irakaskuntzan, aisian eta administrazioan.”

Jarraian proposamenaren berri eman da:

“GAIA: Beasaingo Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2007-2011

AURREKARIAK

Beasaingo Udalak 2003an 2004-2005 urte bitarteko Euskara Biziberritzeko Plana onartu zuen, ondoren, 2006ra luzatu dena Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailaren eskariz. Plan Estrategikoa urteroko kudeaketa planaren bidez garatzen da.

Lehenengo plangintzaldia bukatu da eta horren ebaluazioa egin ondoren, jarraipenerako Plan berria idaztea erabaki zen, 2007-2011 bitartekoa hain zuzen. Horrekin batera, eta plangintza hori garatze aldera, 2007ko kudeaketa plana idatzi da.

PROPOSAMENA

Euskara Batzordeak, 2007-03-20an egindako bileran gaia aztertu du eta EBPNren bigarren plangintzaldiari hasiera eman nahi dio. Horretarako, eskatzen dio Alkate jn.ari, gaia Udalbatzan trata dadin eta Udalak aldeko erabakia har dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzia hauek azaldu dituzte:

Julene Hidalgo andreak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Julio Herreros jaunak (PP): “La propuesta podía haber estado en bilingüe como el resto de la documentación. Estamos de acuerdo.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “El objetivo de este plan puede ser loable, pero eso no significa que las propuestas tal y como se nos presentan, sean aceptables desde nuestro punto de vista. Para nosotros tiene una carga ideológica con la que no coincidimos, y que como partido socialista no participamos. De un plumazo se hace desaparecer lo que dice el Estatuto de Autonomía del País Vasco, en su art. 6, en lo referente a las lenguas oficiales, cuando dice que “el euskera junto con el castellano, tiene carácter de lengua oficial en el País Vasco, y todos sus habitantes tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas. Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua y se garantizará el uso de ambas lenguas a nivel oficial regulando las medidas y medios necesarios”. Si leemos muy detenidamente lo que se nos ha presentado, estos aspectos no se ven reflejados, tal como viene en la Ley que rige la autonomía, y nosotros no le vamos a dar nuestro apoyo.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ/PNV-EA): “Fernando, recordarte que vosotros también apoyáis el bilingüismo, y por desgracia el único bilingüe es el vasco parlante. Hoy en día el servicio de euskera por desgracia no se da en todo el ámbito, y en eso también los que queremos que el euskera sea un instrumento para comunicarnos no podemos avanzar. Son pasos para conseguir el bilingüismo, y de esta manera todos poder tener los mismos derechos. No queremos mezclar la política con el idioma. Los que hablamos en euskera y vivimos en euskera salimos perdiendo, porque tenemos que hablar en castellano para que podáis entendernos. No así al revés. Creo que eso también hay que tenerlo en cuenta.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Sobra preparar un plan de promoción del castellano porque sabemos cuál es la realidad.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nik ahalegin guztiak egin ditut euskaraz ikasteko eta ez nago euskararen aurka, baina irakurtzen badugu nola dagoen hau idatzita, ni baino zorrotzagoak diren pertsonak paper hau irakurtzeko eman diogunean, ezin izan dute lorik egin gau horretan. Probablemente desde el punto de vista ideológico esto es lo más normal, pero cuando se empieza a hablar de identidades, historia, paisaje, lengua, etc., no se está hablando sólo de una lengua como vehículo, se está utilizando una lengua como un instrumento político. Si el escrito hubiera venido de otra forma, es decir, sin marcar una ideología, tal vez hubiéramos tenido otro punto de vista, pero a nuestro entender es un pan ideologizado, y no estamos de acuerdo en aprobarlo.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ/PNV-EA): “Yo creo que de un plumazo no podemos borrar la historia de este pueblo, ni el idioma, y si a eso le quieres añadir la ideología, yo diría más, el ser de un pueblo. Otra cosa es que no estés de acuerdo con la cultura de este pueblo, con las costumbres de este pueblo. Y desde luego es un flaco favor si a todos se nos quiere meter en el mismo saco.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Como decía la persona que ha leído esto, Pio Baroja no formaría parte de la cultura de este pueblo, porque escribía en castellano.”

Julene Hidalgo andreak (EB): “No solo la lengua hace un pueblo, más cosas también la gente, la sangre...”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ/PNV-EA, PP, EB)

Aurkakoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak:

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin 2007-2011rako ondorengo plana onartu da euskararen erabilera biziberritzeko:

“HELBURU OROKORRA:

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea

1.- HELBURU NAGUSIA

Udalerrian, esparru eta maila guztietan, euskararen erabilera indartzea eta areagotzea da Euskara Biziberritzeko Planaren helburu nagusia. Plan honek, dagoeneko euskararen normalizazioan diharduten herri erakunde, enpresa, gizarte-eragile eta bestelako enpresen koordinazioa hobetzea du helburu, hau da, hainbat alorretan lanean ari diren horien indarrak batzea. Eta horretarako lehentasunak finkatu eta eman beharreko urratsak zein diren ezarriko du.

Euskararen erabileran gehien eragiten duten arrazoiak bi dira: bata, hiztunok euskaraz egiteko dugun gaitasuna; bestea, inguruan dugun harreman sarea euskalduna izatea. Honez gain, euskarak duen egiazko balio funtzional eta sinbolikoaz dugun usteak ere eragina du.

2.- HELBURU ESTRATEGIKOAK

Helburu nagusi hori lortzeko landu beharreko ildoak helburu estrategikoek markatuko dituzte. Hiru dira helburu estrategiko hauek:

1. **Euskara ondorengoetaratzea.** Euskararen geroratzea, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez eta hizkuntza bera osatuz, aberastuz eta hobetuz lortzen da, batez ere.
2. **Euskararen erabilera.** Erabiliz zorrotzen da hizkuntza. Horregatik zaindu behar dira familiaren eta eskolaren luzapen eta ingurune diren jardunbide guztiak: kirola, aisia, erlijioa, gune euskaldunenak, enpresa mundua, administrazioa, kaleko bizitza eta abar.
3. **Euskararen elikadura.** Hizkuntza erabiliko bada, elikatu egin behar da. Euskaldunari hizkuntza ezagupenak sendotzen eta bere harreman-sare euskalduna zabaltzen lagundu behar zaio eta horretarako eredu onak eskaini behar zaizkio.

1. Helburu estrategikoa

EUSKARA ONDORENGOETARATZEA

1. a esparrua – Irakaskuntza

1. NEURRIA: Haur Eskolak nahiz ikastetxeak euskara, bere hizkuntza propio bezala hartu behar du, bitartekari-papera jokatzeko baita pertsonaren garapenean eta inguruarekin duen giza erlazioetan bere ezagutza eraikitzeko. Horretarako hezkuntzaren hizkuntza eta edukiak bere etxeko eta bere herriko kulturarekin zerikusi handia eduki behar dute, hori baita bere bizitzarako baliagarria den ezagutza lortzeko bidea. Hori dela eta, hizkuntza normalkuntza lortzeko eskolatzeko sistema osoaren inplikazioa ez ezik gizartearen eta familiaren motibazioa eta inplikazioa behar beharrezkoak dira oraindik.

Ekintzak

- Kurrikulua egokitu gizartean antzematen diren euskararen behar berrietara.
- Haur eta gaztetxoei euskarazko produktuak ezagutarazi eta kontsumitzera bultzatu.
- Euskararen kalitatea hobetzeko neurriak hartu.
- Ahozkoasuna lantzeari lehentasuna eman.
- Euskararen erabilera erakargarri egiteko ekimenak sustatu: hizkuntzaren ludikotasuna landu.
- Berritzeguneekin lankidetzan, irakasleen prestakuntzaren arloari begirako programa garatu.
- Lanbide Hastapenetako ikasleen formazioa

2. NEURRIA: - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, euskara, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eragin eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintzak

- Ikastetxeetako normalkuntza-planak bultzatu eta indartu.
- Euskal kultura ezagutzeko edota euskarazko kultura ezagutzeko Eusko Jaurlaritzak dituen baliabideetara bultzatu ikastetxeak.
- Euskarazko hedabideak erabili ikastetxeek herritarrei azaldu nahi dietena zabaltzeko eta aldi berean hedabide horiek ezagutarazi.
- Gurasoak ere ikastetxeko hezkuntza eta hizkuntza helburuetan inplikatu eta guraso erdaldunei euskara ezagutzearen abantailak ikusarazi
- Eskolan gurasoentzako antolatzen diren ekintzetan zein herriari begira antolatzen direnetan, hizkuntza-irizpideak ezarri eta jarraipena egin.
- Eskoletan ikasleentzako garatzen diren ongizateko programetan hizkuntza-irizpideen jarraipena egin.
- Sustapen ekintzak egin eta euskara prestigiatu euskara guztion altxorra dela erakutsiz.
- Ikasleengan irakur zaletasuna eta idazteko zaletasuna sustatzen den moduan ahozko diskurtsoa ere sustatu.
- Ikastetxeei euskara eta euskal kultura indartzeko laguntza eman

3. NEURRIA: - Eskolaz kanpoko erabilera-esparruetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak proposatu eta eragile horien inplikazioa lortu.

Ekintzak

- **Ikasleak eremu informaletan izan ditzaketen mugak edo zailtasunak aurreikusi: gelaz kanpoko esparru sozialetan eragiteko estrategiak koordinatu.**
- **Ikasleen ikastetxez kanpoko ibilbidearen jarraipena egin eta udal zerbitzuen erabilera ere aztertu.**
- **Erabilera bultzatzeko erabiltzen diren prozedura desberdinak ezagutzea eta familiei aholkatzea.**
- **Euskararen erabilera ardatz nagusitzat izango duten haur eta gazteentzako zerbitzuak eskaini (Udal Musika Eskola,...)**
- **Lehen hezkuntzako ikasleentzat Udal Musika Eskolako emanaldia**
- **Herriko euskarari lotutako hitzak, esapideak,...zabaltzeko tresna sortu**

4. NEURRIA: - Irakaskuntza ez arautuan, (INEM, HHI/EPA, Kzgunea,...) eta herriko akademietan antolatu ohi diren ikastaroetan euskaldunen eskubideak bermatzeko bideak jarri, beren irakas-eskaintza eta funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko eta hobetzeko.

Ekintzak

- **Arlo horretako ikastetxe eta akademietako hizkuntza-egoera ezagutzeko datu-bilketa egin eta dagokion erakundea euskararen erabilera gehituko duten planak egitera bultzatu.**
- **Arlorako euskarazko materialak eta produktuak bultzatu.**

5. NEURRIA: Ikasle etorkinak euskal gizartean integratzeko, euskara ezinbesteko tresna da gizarteko kide izateko eta hala sentitzeko eta gizartean nahiz lan-munduan integratzeko aukerak gehitzeko. Eskolaren helburuetako bat derrigorrezko irakaskuntza amaitzerakoan, ikasle etorkinak bizitza praktikoan moldatzeko eta euren ikasketak euskaraz jarraitzeko moduko gaitasuna izatea da.

Ekintzak

- **Ongizate sailarekin lankidetzan, etorkinen harrera-plana antolatzea. Plan horretako helburuetako bat Euskal Herriko eta bereziki udalerriko hizkuntza egoeraren berri ematea izango da.**
- **Etorkinen integrazioa eta hizkuntzaren eskurapena azkartzeko programa zehaztu.**
- **Kulturartekotasuna sustatu.**

1. b esparrua - Euskalduntze-alfabetatzea

1. NEURRIA: - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik

eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintzak

- **Administrazioan lan egiten duten langileen beharretara egokitutako irakaskuntza bideratu, beren zereginetarako behar bereziak dituztenak: ikastetxeetako irakasleak, Osasun Zentroko langileak, udaleko langileak,...**
- **Euskal gizartean integratzeko bidea egin nahi dutenen beharretara egokitutako irakaskuntza: gurasoak, etorkinak, merkatariak,..**
- **Ikasprozesua aukera askotarikoa eta kalitatezkoa bihurtu, eta gero eta pertsonalizatuagoa egin.**
- **Euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa landu gizartean, hizkuntza-ohiturak aldatzeko erabakiak hartzera bultzatuz.**
- **Egoera eta premia berriei aurre egiteko ikas/irakasteko modu berriak garatu teknologia berriak erabiliz. Aldi berean, Autoikaskuntza sistemaren eskaintza garatu .**
- **Udal Euskaltegiaren web-gunea sortu, bertan euskara ikasteko eta hobetzeko baliabideak eskaini.**
- **Udal Euskaltegiaren interneteko helbidean eskaintzen diren zerbitzu telematikoetarako sarbidea izan HTEaren bidez.**
- **Udal Euskaltegiaren urteko komunikazio-plana diseinatu**
- **Euskaltegietan euskara ikasteko laguntzak.**

2. **NEURRIA.** Eskoletan eta Euskaltegietan hasitako ikas-prozesuaren eraginkortasuna udalerriko esparru desberdinetan antzemateko, eta erabilera areagotzeko zerbitzu edota produktu gehiago garatu behar ditu Euskaltegiak, curriculum desberdinak eratzea behar beharrezkoa da eraginkorrak izateko. Era berean, ikasleak euskaraz aritzeko dituen aukerak eta oztopoak aurreikusi egin behar dira.

Ekintzak:

- **Euskaltegiak herriko esparru desberdinetarako euskara erabiltzera bideratutako curriculum anitzeko programak edota neurriko proposamenak egingo ditu eta horien betetze maila jaso.**
- **Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren ekarpenak aztertu eta geurean aplikagarriak diren alderdiak jaso.**
- **Herriko euskal hiztunak EBPNk markatutako hizkuntza politikaren alde gaitzea.**

1. c esparrua – Familia

NEURRIA: - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (hautzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

Ekintzak

- **Euskaltegiarekin lankidetzan, gurasoei eskaini ohi zaizkien ikastaroetan seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzeko ez ezik hezten ere laguntzeko moduluak txertatu eta horiek teknologia berrien erabilerarekin osatu.**
- **Haur jaioberriaren lehen hizkuntza ziurtatzearen, herriko Osasun Zentroarekin lankidetzan, familia osatu berriengana hurbildu, beharrak antzeman eta ekimenak proposatu.**
- **Etxeko hizkuntzaren garrantziaz informazioa zabaldu.**

2. EUSKARAREN ERABILERA:

2. a esparrua – Administrazioa

1. NEURRIA: Gizarte-arlo desberdinei eragiten dieten planifikazio, ebaluazio, dinamizazio... jarduerak egin, egoera hobeto ezagutzeko eta egitasmo berriak bideratzen laguntzeko

Ekintzak

- **Udalerriko kaleko eta esparru desberdinetako euskararen erabilera eta bilakaera ezagutzeko, azterlanak eta txostenak egin.**
 - **Euskara dinamizatzeko Euskal Herrian zehar antolatzen diren jardueretarako laguntzak bideratu**
 - **Udaleko Erabilera planaren ebaluazioa egin eta hurrengo hiru urterako plana zehaztu.**
2. NEURRIA: - Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatu, beti ere, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz.

Ekintzak

- **Herritar guztiek Udalaren egitasmoen berri izateko, komunikazio plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.**

- Dirulaguntzak banatzeko deialdietan eta azpiegitura erabiltzeko baimenetan hizkuntza-irizpideak ezarri
- Ahozko jardunetan euskarazko komunikazioa areagotzeko langileak eta agintariak motibatuzeko ekintzak.
- Bermatu herritarrak eskatzen duen hizkuntzan zerbitzua eskaintzea. Horretarako, euskara hutsean harremana izan nahi duten herritarren zentsua egin, erabilera hori arautu eta baliabideak jarri.
- Bake epaitegiarekin euskara normalizatzeko plana bideratzeko egoeraren berri izan.

3. NEURRIA: - Euskara beste administrazioekiko eta arlo pribatuekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatu.

Ekintzak

- Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan jarritako hizkuntza-irizpideei jarraipena egiteko sistema eratu.
- Arangoiti fundazioan euskararen erabilpena aztertu.
- Diruz laguntzen zaien elkarteei hizkuntzaren jarraipena egin
- Hornitzaileei (albaranak, fakturak eta aurrekontuak,..) euskaraz egiteko eskatu
- Osasun-arloa eta Ertzaintza euskalduntzeko egitasmoen berri jakin eta horiek indartzeko bideak aztertu.

4. NEURRIA: - Euskara administrazio-barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatu

Ekintzak

- Ordezkaritza politikoak euskaldunak izan daitezten ahalegindu eta euskara-planean inplikatu.
- Udal langileei lana euskaraz egiteko behar dituzten prestakuntzak eta tresnak ziurtatu.
- Langileen formazio-planeko jardueratan hizkuntza irizpideak zehaztu.
- Lankideen arteko elkarrizketa eta bileretako hizkuntza euskara izatea.
- Espediente kudeaketan adierazleak jartzea euskaraz, gaztelaniaz eta elebrietan egiten diren idatzien kopurua jakiteko. Bestalde, eskatzaileak zein hizkuntzatan jaso nahi duen erantzuna erregistroan jasotzea.
- Wordfast itzulpen memoria hainbat sailetara zabaltzea
- Euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko interneten dagoen materiala udalaren web gunean zintzilikatu eta sail guztien nahiz herriko zerbitzuen eta herritarren eskura jarri.
- Euskararen kalitatea hobetu eta bermatzeko sistema eratu.

2. c esparrua - Enpresa-mundua

1. NEURRIA: - Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; LanHitz ekimenak lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitu du eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzeko bidea jarri du; Erreferentzia Marko Estandarraren (EME) bidez, neurrira egindako ekintza plana diseinatu eta gauzatu.

Ekintzak

- **Herriko enpresa handiei LanHitz egitasmoari heltzeko aholkatu.**
- **Bareak Beasaingo elkartearekin elkarlana bultzatu euskararen erabilera areagotze aldera.**
- **Herriko sindikatuarekin lankidetzak-akordioak sinatu, euren bazkideei eskaintzen dizkieten zerbitzuetan euskara txertatzeko eta bazkide bakoitzari eguneroko jardunean euskararen erabilera sendotzeko baliagarri izango zaizkion baliabideak eskaintzeko eskatuz**

2. NEURRIA: - Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriad, merkataritza, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariarekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

Ekintzak:

- **Herriko zerbitzu enpresek eta merkatariek euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko interneten dauden baliabideak udalaren web gunean zintzilikatu.**
- **Udalak merkatarientzat dituen dirulaguntzak udalaren web gunean jarri.**
- **Udalak merkatarientzat eta zerbitzu enpresentzat dituen laguntzak, zerbitzua euskaraz emateko zein errotulu, irudi korporatibo eta web guneak euskaraz jartzeko.**
- **Aholkularitza eta ondasun higiezinaren agentzietan proposamen zehatzak egin bakoitza dagoen egoeratik abiatuta.**
- **Publizitate- eta diseinu-etxeekin elkarlana bideratu, zerbitzua ematerakoan hizkuntza-irizpideak kontuan har ditzaten**
- **Euskara-zerbitzuak merkataritzan egiten duenaren berri eman publizitatearen bidez merkatariei eta herritarrei. Horretarako, katalogoa eguneratu, zabalkundeak egin eta merkataritza-gidan txertatu**
- **Udal web guneko industria-gida eguneratu eta merkatarien datu-basea osatu hizkuntza-irizpideak txertatuta.**
- **Etxeetako jabeekideei euskara erabil dezaten aholkularitza eta itzulpen-zerbitzua eskaini.**
- **Herriko Elkarte eta bankuei euskara areagotzeko egindako proposamenari jarraipena egin.**

- **Eraginkorrak diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin**
- **Ongizate eta osasun-lanetan diharduten erakundeekin plangintza zehatzak egin euskararen erabilera areagotzeko neurriak har ditzaten.**

3.- NEURRIA. Euskara-planak dituzten enpresen prestakuntza-premiak aztertu eskualdeka eta bertako prestakuntza-zentroekin eskaera horiek asetzeko neurriak abian jartzea.

Ekintzak

- **Herrian enpresa berriak irekitzera doazenei ematen zaizkien ikastaroetan euskara-planen inguruko informazioa eman eta euskaraz lan egiteko baliabideen informazioa zabaldu.**
- **Laneko prestakuntzaz arduratzen diren erakundeei hizkuntza-irizpidea txertatzeko ahalegina eskatu. Laneko prestakuntzari buruzko informazio-euskarri guztiak euskaraz ere egotea eskatu eta erakundeen eta erabiltzaileen arteko internet bidezko harremanak, zein bestelakoak, euskaraz ere, izan daitezten bermatzeko.**
- **Erakunde publikoek antolatzen dituzten prestakuntza-modulu desberdinetan euskarazko eskaintza bermatu, erakunde horietako euskara-planetan baldintza hori jasoz eta prestakuntza emango duen enpresa kontratatzerakoan hizkuntza irizpidea ezarri.**
- **Erakunde publikoek euskaraz eman dezaketen prestakuntzaren eta euskara irakaskuntzaren informazioa zabaldu (gaiak, euskara-mailak, euskaltegiak). BOZI proiektua (Goieki).**

2. d esparrua – Aisia

1. NEURRIA: - Aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Urtxintxa) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro

Ekintzak

- **Hezitzaileek aisialdiko jardueretan euskararen erabilera bultzatzeari begira prestakuntza- eta aholku-saioak eskaini.**
2. NEURRIA: - Euskararen aldeko ekintza soilen ordez, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintzak

- **Aisiako gida. Euskarazko jarduerak eta zerbitzuak 16/18 urtetik beherakoentzat bilduz.**
- **Opor-garaian haurrentzako euskarazko aisiako jarduerak eskaini**
- **Euskarazko gazte argota zabaldu eta erabilera sustatu.**

- **9 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat aisialdiko materiala egokitu.**

2. e esparrua – Kirola

1. NEURRIA: - Kirol-arloa euskalduntzeko hiru jardun-eremu nagusi finkatu: entitatearen irudia eta komunikazioa landu, zerbitzuak eragiten dituen kanpo-harremanak (erabiltzaileak, hornitzaileak, erakundeak,...) euskaldundu eta zerbitzuak eragindako barne-harremanak (laneko prestakuntza, informatika-baliabideak, kudeaketa orokorra,...)

Ekintzak

- **Udalerriko kirol-taldeek euskararen normalizatorako hartzen dituzten konpromisoetarako elkarlana bideratu.**
- **Eskola- eta kirol-egitasmoaren inguruko berri izan eta hizkuntza-irizpideen betetze-maila jaso.**
- **Antzizar kiroldegiko zerbitzu teknikoak**

2. NEURRIA: - Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen `Denontzako Kirola´ programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintzak

- **Udalerriko kirol-elkarteei eman beharreko diru-laguntzak arautu, euskararen erabilera areagotzeko konpromisoak barne.**
- **Antzizar kiroldegiko zerbitzua ematen duen enpresako arduradunarekin lehia-baldintzetan jarritako hizkuntza-irizpideen jarraipenerako prozedura markatu.**

2. f esparrua – Erljioa

1. NEURRIA: - Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeari eskatu elizbarrutiei.

Ekintzak

- **Elkarlan-bideak adostu herritarren hizkuntza-eskubideak bermatze aldera.**

3. EUSKARAREN ELIKADURA

3. a esparrua - Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

1. NEURRIA: - Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak landu.

Ekintzak

- **Toponimoak, androponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu Euskaltzaindiarekin bat etorriz.**
- **Herriko toponimiaren nomenklator ofizialaren erabilera egokia bultzatu.**
- **Udalerriko eragileekin lankidetzan, herriko hainbat esparrutara zabaltzeko urteko egutegia argitaratu**
- **Izen-Abizenak euskal grafiaz idazteko kanpaina bideratu**

3. b esparrua – Liburugintza

1. NEURRIA: - Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, Udal Bibliotekaren, Eskualdeko komunikabideen, eskolen, liburu dendan, eta liburu-azoken bidez.

Ekintzak

- **Euskaltegiarekin lankidetzan, Euskal literatura irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko programa bat eratu haur eta helduentzat.**
- **Euskal liburu eta disko azoka egin**
- **Udal Biblioteka era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan**
- **Oporraldietarako irakurketa-gidak osatu eta horren zabalkundea egin**
- **Herriko kultur ondarea jasoko duten liburuak idatzi eta argitaratu. Beasaingo Paperak.**

2. NEURRIA: - Argitaletxeekin elkarlanean euskal literatura, eta batez ere euskal idazleak sustatu eta ezagutzera eman.

Ekintzak

- **Euskal idazle gazteen lana sustatzeko Igartza literatur beka**

3. c esparrua – Publizitatea

1. NEURRIA: - Euskaldunen merkatua eta honen kontsumo- eta errentagarritasun-ahalmenak aurkeztu publizitate-prozesuko eragileei eta publizitatea euskaraz egiteak dituen abantailak agertzen saiatu.

Ekintzak

- **Publizitate euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazioan lan egin sektoreetako elkarteekin batera (merkatari eta ostalarien elkartea,...).**
- **Herritarrek, merkatari eta enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman.**
- **Udaleko sailek eta zerbitzuek euskaraz egiten duten publizitatea.**

3. d esparrua – Kulturgintza

1. **NEURRIA:** - Kulturgintza: Haurrei eta gazteei zuzendutako euskarazko kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziatik.

Ekintzak

- **BEASAIN idazlehiaketa antolatu ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko**
- **Bertso-eskola sortu, bertsolaritza eta ahozko produkzioa sendotzeko.**
- **Udalaren menpeko kulturguneetan euskarazko materiala eguneratuta izatea eta erabiltzaileen eskura jartzea.**

2. **NEURRIA:** - Euskal kulturaren eta tradizioaren berreskurapena. Euskara ulertzeko gai direnak ere erakartzen saiatu.

Ekintzak

- **Erdal mundua euskara eta euskal kultur ekintzetara hurbiltzeko estrategiak landu eta indartu.**
- **Euskal kantagintzaren tradizioa bultzatzeko kantaldia**

3. **NEURRIA:** - Kultur elkarten barne- eta kanpo-funtzionamenduan euskarazko bideak sustatu eta kultura ekitaldietan euskararen presentzia bermatu.

Ekintzak

- **Elkarlana adostu eta bideratu. Entitateek hartzen dituzten konpromisoen betetze-mailari jarraipena egin.**

3. **NEURRIA:** - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintzak

- Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea.
- Herriko festetan eta kultur ekitaldi guztietan euskararen presentzia bermatu
- Kultur jarduerak sortarazten duten materialaren itzulpenak egiteko laguntza teknikoa eskaini
- Herrian dauden kultur taldeen sormen lana eta proposamenak/ekarpenak bultzatu. Horretarako laguntza teknikoa eta diruzkoa eman.
- Herriko kultur ondarearen zabalkundea egin.
- Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak

3. e esparrua – Hedabideak

1. NEURRIA - Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko telebistak, irratiak eta prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintzak

- Euskalkiari euskarazko komunikabideetan egin beharreko tratamendua aztertzea.
- Euskarazko komunikabideen, erakundeen eta gizarte eragileen lankidetzak bideratzeko moduak zehaztu.
- Eskualdeko euskarazko irratia sortu eta bultzatu.
- Euskaldunen artean euskarazko hedabideen kontsumoaren aldeko kontzientzia sustatzea
- Goiekik eta eskualdeko komunikabideetako publizitate-kudeaketa garatzen duten enpresek adostutako publizitate-salneurrien akordioa Udalean aplikatu.
- Euskarazko komunikabideek duten merkatuaren azterketa egitea eta lan-ildoak proposatzea.

2. NEURRIA: - Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.

Ekintzak

- Adin guztietako irakurle, entzule eta ikusleei zuzendutako eskaintza egitea. Erabili beharreko euskara-erregistroak finkatzea.
- Kultur eskaintza erakargarriagoa izateko euskarri izan eta ez hori utzi publizitate etheen gain, hedabideek sustatze lana egin.

3. NEURRIA: Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak

eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

Ekintzak:

- **Eskualdeko euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak arautu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak.**

8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Ezagutzera eman da, Alkateak 2007ko otsailaren 27tik martxoaren 26ra bitarte emandako ebazpenen zerrenda.

9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ARRIARANGO AISIALDIKO ELKARTEARENTZAKO LIZENTZIAZ EGINDAKO TXOSTENA.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “En la comisión de urbanismo pedimos un informe técnico-jurídico sobre la licencia de construcción de la ampliación de la sociedad de Arriarán. Las NN SS establecen para los barrios la redacción de un Plan Especial y sólo entonces cabría otorgar las correspondientes licencias. Dado que por parte de Alcaldía se ha saltado este aspecto, y se ha otorgado la licencia sin que esté aprobado el Plan Especial, nos gustaría saber si se ha emitido el informe que solicitamos y si se ha redactado nos gustaría tener una copia.”

Idazkariak esan du, txostena eginda dagoela eta nahi duten moduan emateko prest dagoela.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Matizar que no se ha otorgado ninguna licencia porque las obras las efectúa el Ayuntamiento.”

URA SARTU

Igartzatik plataformako ordezkariak adierazi du Arrano Elkartean berriro ere ura sartu dela eta bonbak ez duela funtzionatzen argirik ez dagoenean. Zerbait egiteko erregutu du.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Desde hace un año se adoptaron las medidas pertinentes, y cuando hay normalidad en las líneas de Iberdrola

funciona bien, pero cuando ha habido una caída general, que es una situación excepcional, no funciona. También se proponía como solución que cada bajo tuviera un evacuadero, pero cuando hay una caída general, tampoco sirve.”

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA): “Cuando hubo inundaciones se puso un doble suministro, pero esta vez ha vuelto a fallar.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.